

# Ageriko bilkura

Bilbon, 2009ko uztailaren 17an

Gaur, uztailak 17, egin da 90. urteurreneko ospakizuna Bilbon, egoitzan, goizeko 10:30etan hasita.

Bildu direnak:

- Euskaltzain osoak: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andoni Sagarna, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Aurelia Arkotxa, Patxi Goenaga, Jose Irazu «Bernardo Atxaga», Joseba Andoni Lakarra, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdei, Patxi Uribarren, Xarles Videgain, Piarres Xarritton, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dutenak: Miren Azkarate, Jean-Louis Davant, Pello Salaburu, Patxi Salaberri eta Ibon Sarasola.
- Ohorezko euskaltzainak: Koldo Artola, Karmele Rotaetxe eta Xabier Gereño.
- Euskaltzain urgazleak: Joseba Agirreazkuenaga, Dorleta Alberdi, Luis Alberto Aranberri «Amatiño», Kepa Altonaga, Pakita Arregi, Xabier Artola, Gorka Aulestia, Ricardo Badiola, Joseba Butron, Jose Luis Erdozia, Jose Ramon Etxebarria, Patxi Galé, Pruden Gartzia, Juan Luis Goikoetxea, Mikel Gorrotxategi, Itziar Idiazabal, Jose Mari Iriondo, Jazinto Iturbe, Jon Kortazar, Jesus Mari Makatzaga, Abel Muniategi, Elixabete Perez Gaztelu, Paskual Rekalde, Manu Ruiz Urrestarazu, Pello Telleria, Miriam Urkia eta Juan Jose Zearreta. Ezin etorria adierazi dutenak: Joan-Baptiste-Coyos, Jose Maria Etxebarria eta Ricardo Gómez.
- Batzordekideak: Gerardo Luzuriaga eta Erramun Osa. Ezin etorria adierazi dutenak: Henri Duhau.

- Egitasmoetako teknikariak: Gorka Intxaurbe, Amaia Jauregizar.
- Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi, Nerea Altuna, Kristina Arana, Jon Artza, Olatz Etxeberria, Iñaki Kareaga, Alazne Lopez de Aretxaga, Amaia Okariz, Josune Olabarria, Emilio Porras, Erlantz Aristegi.

Euskaltzainburuak zabaldu du ekitaldia, bertaratu diren guztiei ongi etorria emanez, bereziki beste hiru Hizkuntza Akademien ordezkariak: Real Academia Española, Real Academia Galega eta Institut d'Estudis Catalans.

## Akademien egitasmoen azalpena

Batzarraren lehen partean, esku artean dituzten egitasmoen berri eman dute gaur bildu diren Akademien ordezkariak.

Real Academia Española-ko zuzendariordea den Jose Antonio Pascual jaunak eman dio hasiera, gonbitatzeagatik Euskaltzaindiari eskerrak emanez. Burutua duten *Diccionario Panhispánico de Dudas* izeneko hiztegia izan da abiapuntua. Urtebete barru *Gramática de la Lengua Española* burutua izatea espero dute, 1931koa ordezkatzuz. Oraindik luze joko duen egitasmo honen berri ere eman du: *Nuevo Diccionario Histórico de la Lengua Española*. Lexikografia eta gramatika lanen oinarria izan da, ordea, CORDE egitasmoa, 300 miloi hitz dituen corpus historikoa eta, CREA (gaur eguneko gaztelaniaren corpusa); baina CORPES egitasmoari ere ekin diote, hau da, XXI. mendeko materialak jasoko dituen corpusari.

Real Academia Galegaren izenean, Akademiaren azalpen orokorra egin du Manuel González idazkariak. Lau sail ditu Akademiak: onomastika, soziolinguistika, gramatika eta lexikografia. Onomastikan hiru arlo hauek aipatu ditu: *Toponimia de Galicia* izeneko egitasmoa, toponimo eta mikrotoponimo guztien bilketa sistematikoa egiten duena; Galiziako pertsonen izenak eta deiturak biltzen dituen datutegia; Galiziako toponimoez jasotzen diren irizpen-eskaerei ere erantzuten zaie. Soziolinguistikaren arloan, *Mapa sociolingüístico galego* delako egitasmoan biltzen dira urte ezberdinetan egin diren inkestak erantzunak; horren osagarri, *O galego segundo a mocidade* izeneko egitasmoak, hizkuntzen erabilerak baldintzatzen dituzten ezkutuko jarrerak aztertzen ditu. Gramatikaren arloan, *Seminario de Gramática* izeneko taldea ari da galizieraren gramatika prestatzen. Lexicografía arloan, hiztegi hauek lantzen ari dira: *Diccionario da pronuncia* eta *Diccionario da Real Academia Galega*. Euskaltzaindiari 90. urteurrenean zorionak emanez amaitu du hitzaldia Manuel González jaunak

Institut d'Estudis Catalans-eko buruordea den Isidor Marí jaunak eman du Erakunde horren berri. Lehenik, zuzenean araugintzarekin zer ikusia duten egitasmoak azaldu ditu: *Gramática de la llengua catalana*; *Diccionari de la llengua catalana*-ren bigarren argitaraldia; *Nomenclàtor oficial de toponímia major de Catalunya*, ofizialduriko 54.000 toponimo biltzen dituena; *Propuesta de estándar oral*, fonetika eta morfologia biltzen duena, baina ondoren, aztertzen ari diren sintaxiaz eta lexikoz hornituko da; *La normalització terminològica en català: criteris i termes 1986-2004*, 6.000 neologismotik gora biltzen dituena. Ondoren, beste ikerketa-egitasmo batzuk azaldu ditu hizkuntzalaritza, filologia eta literatura arloetakoak: gaur eguneko katalana biltzen duen hiztegia, neologiaren behatokia, Pompeu Fabraren idazlan guztiak eta katalanaren atlasa, besteak beste.

Euskaltzaindiaren Iker Sailburua den Andoni Sagarnak Akademiaren arlo eta lan nagusiak azaldu ditu, labur-labur. Iker Saileko batzordeek urtetan zehar egiten ari diren lana azpimarratu du, hor egin den lanak ahalbidetu baitu Euskaltzaindiak kasuan kasuko arloak ematea (Hiztegi-gintza, Gramatika, Onomastika, Exonomastika, Fonologia). Bestelako ikerketa-lanetan ari diren batzordeak ere aipatu ditu: Atlasa eta Literatura. Ondoren, Jagon Saileko batzordeen lanaren berri eman du, Euskararen Historia Soziala egitasmo berriaren berezitasunak azpimarratuz. Bukatzeko, azpiegiturazko batzorde eta zerbitzuen lanaren berri eman du.

## Akademiaburuen hitzak

Bigarren partean, aldiz, Akademietako buruak mintzatu dira, hots, Víctor García de la Concha, Xosé Ramón Barreiro, Joan Martí eta Andres Urrutia euskaltzainburua.

Víctor García de la Concha, Euskaltzaindiak eta Real Academia Española-k aspalditik izan dituzten harremanak aipatuz hasi da. Ondoren, Espainian dauden hizkuntzek bata bestearen artean izan duten eragina gogorarazi du eta hizkuntza guztiei zor zaien begirunea. 90. urteurrenean Euskaltzaindiari zorianak emanez amaitu du hitzaldia.

Xosé Ramón Barreiro Real Academia Galegako burua, Euskaltzaindiak hiru Akademiei egin dien harrera atsegina eskertuz hasi da. Ondoren Real Academia Galegaren hasierako gorabeherak aipatu ditu. Bereziki, lehen presidentearen –Manuel Martínez Murguía-ren– goraipamena egin du, hura euskalduna zela gogoraraziz.

Institut d'Estudis Catalans-en Secció Filologica-ko burua den Joan Martí-k Euskaltzaindia zoriondu du 90. urteurrenagatik eta eskerrak eman dizkio lau Akademiak biltzeagatik. Ondoren, Institut d'Estudis Catalans-en historiaren eta jardun-esparruaren azalpen oparoa eman du. Hizkuntzaren araugintzaz gain oso garrantzi handikoa da hizkuntzaren alde egiten den ahalegina gizarteratzea, horretarako gaur eguneko teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideak erabiliz. Globalizazioaren eraginez gero eta gehiago dira kanpotik datozen beste hizkuntzetako pertsonak, eta horiei zor zaien begiruneaz batera, bertako hizkuntza erabiltzen dutenen errealitatea ere defendatu behar da. Beste hizkuntzen Akademiekin lanean aritzeko borondatea azalduz amaitu du hitzaldia.

Andres Urrutia euskaltzainburuak eskerrak eman dizkie beste hiru Akademiaren ordezkariari, Euskaltzaindiaren gonbitari baiezko erantzuna emateagatik. Lau Akademiak 1994an, gaur bezala, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan bildu zirela gogoratu du, Fernando Lázaro Carreter Real Academia Españolako buruak esandako hitzak aipatuz, eta baita Joaquim Rafel Institut d'Estudis Catalans-eko buruarenak ere. Euskaltzaindian azken urteotan sartu diren euskaltzain oso berriena sartzea aipatu du. Euskaltzaindiak, barneko lanei ekiteaz gain, beste erakundeekin lankidetzan aritzeko duen borondatea azpimarratu du, eta bereziki gaur bildu diren Akademiekin.

## Adierazpena

Akademiaburuen hitzen ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak, gaur goizean Akademiaren ordezkariak adostu duten adierazpena irakurri du, lau Akademiaren izenean. Akademiaren jardun-esparrua hizkuntzalaritzakoa eta zientifikoa dela esaten hasten da adierazpena eta hizkuntzekiko begirunea aitortzen. Lau Akademiaren arteko harremana sendotzeko asmoa aldarrikatu da, hori hitzarmen batean gauzatzeko asmoarekin batera. Lehen urratsa hiztegi elebidunak egitea izan daiteke, hizkuntzen arteko zubi zuzenak egiteko.

## Oroigarriak ematea

Ekitaldiaren amaieran, Euskaltzaindiaren 90. urteurreneko oroigarria eman die Euskaltzainburuak beste hiru Ademiako buruei (Euskaltzaindiaren logoari buruzko erresinazko eskultura, David Abajo jaunak egina).

Ondoren, bertaratu diren euskaltzain oso, emeritu, ohorezko eta urgazleek, al-  
diz, Euskaltzaindiaren ikurra jaso dute Zuzendaritzako kideen eskutik.

Ekitaldia eguerdiko 13:45ean bukatu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria